

ZEINTZUK DIRA ETORKINAK?

1.- Deskribapena

Haurrek ezagutzen dituzten etorkinei nahiz ezagutzen ez dituztenei buruzko galdera batzuei erantzungo diete, eta taldean erantzunak eztabaidatuko dituzte.

2.- Helburuak

- Etorkinen ezaugarriei buruz hitz egitea.
- Etorkinei buruzko aurreiritziak aztertzea (atzerritar batzuk etorkintzat hartzen ditugu, baina beste batzuk ez).
- Etorkinen jatorrizko herrialdeak mapan kokatzea.

3.- Partaideak

8 eta 20 pertsona arteko talde bat.
Adina: 12 urtetik aurrera.

4.- Materiala:

Galdera-sorta, boligrafoak, koloretako pegatinak eta munduko mapa.

5.- Abiapuntuko arauak

1. Bakarka.
2. Talde handia.

6.- Garapena

Taldekideek bakarka erantzungo diote galdera-sortari. Ondoren, denen artean erantzunak eztabaidatuko dituzte.
Dinamizatzaileak haur guztiak animatuko ditu eztabaidan parte hartzera.

7.- Ebaluazioa

Nolakoak dira etorkinak? Zergatik dugu iritzi hori? Etorkinen bat ezagutzen al duzue? Lehen eta bigarren mailako etorkinak daudela uste al duzue? Zergatik? Nongoak dira ezagutzen ditugun etorkinak? Etorkin horien zein ezaugarri atsegin dituzue?

8.- Iturria

BAKEOLA. Bitartekaritza eta Gatazken Konponbiderako Zerbitzua. EDE Fundazioa. Bilbo. 2004.

ERANSKINA. ZEINTZUK DIRA ETORKINAK?

1. Etorkinen bat ezagutzen al duzu? Non edo nola ezagutu zenuen?
2. Beste taldekideei pertsona horiek nolakoak diren kontatu behar bazenie, zer esango zenuke?
3. Zure ustez, pertsona hauek etorkinak al dira?
 - Rivaldo.
 - Zinedine Zidane.
 - Yvone Reyes.
 - ...
4. Zure ustez, etorkin guztiei zergatik ez zaie berdin begiratzen?
5. Idatzi ezagutzen edo miresten dituzun beste etnia batzuetako pertsonen zerrenda bat. Zehaztu bakoitzak egiten duena, eta esan laguntzat edukiko al zenukeen.

| Izena | Zer egiten du? | Zergatik nahi duzu laguntzat eduki? |
|--------------|-----------------------|--|
|--------------|-----------------------|--|

6. Seinalatu munduko mapa batean goian aipatutako pertsonen jatorrizko herrialdeak.